




Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Zientziaz ase, pazientziaz gose

Pello Zabalaren oroime-
nez, bere hitz batzuekin
zabaldur nahiko nuke ar-
tikulu hau: «Hortxe, na-
turaren eskolan, azienda,
hegazti, txori ta beste,
landare ta zuhaitz, haize eta euri, ho-
dei eta laino, ekaitz eta uztargi, ho-
rien denen bidez landu zuen bere ja-
kinduria berezkoa». Inguratzen
zuen irakurtzeko gaitasuna zuela
irakurri diot Onintza Enbeitari, eta
jarduera zientifikoa definitzeko mo-
du polita iruditu zait. Jakina, ingurua
irakurtze horretan zientziak baditu
beste bertute eta miseria batzuk, zu-
tabe honetan agerian jarri ohi duda-
nez, eta elikaduraren eremu gero eta
politikoagoa ez da salbuespena.

Pasa den astean irakurri nuenez,
«haragia jateak gizaki egin ote gin-
tuen» eztabaidatzen ari omen da
zientzia. Ildo beretik egon da soka es-
painiar hedabideetako zientzia atale-
tan... zientziak ez omen du helburu
politikorik, baina urteetan erabili
izan da beltzak zuriak baino gutxia-
go direla frogatzeko, emakumeak gi-
zonak baino tuntunagoak direla
baieztatzeko edo azukreak osasune-
an duen eragin kaltegarria kamufla-
tzeko. Orain, haragiaren kontsumoa
mahai gainean, batzuek kategoria
humanista existentziala eman nahi
diotela dirudi... Egiari zor, *Homo erec-
tus*aren garunaren garapen bortitza
haragiaren kontsumoaren lehenen-
go aztarnen garaikidea da, baina hor-
tik kausalitatea eraikitza bada go
tarte bat.

Izan liteke garai horietan janari
metaketa hasi izana eta horrek berak
elikatu izana garunaren garapena,
amamaren hipotesi bezala ezagutzen
dena. Baina haragia jateak garatu ba-
zuen garuna, jateari uzteak ez gaitu
berri animalia egingo, ala?



Pello Zabala, ingurua irakurtzeko gaitasuna.

Juan Carlos RUIZ | FOKU

Era batera edo bestera, agerikoa da haragi gehiegi jaten dugula, gure osasunaren kalterako, baina batez ere, horren ondorioz eragiten dugun lapurreta eta biodibertsitate galerari erreparatu. Izan ere, agroindustriak dakarren biodibertsitatearen galera globalak haragiaren kontsumo neurrigabe honetan du sustrai nagusi bat. Erantzuna baina, ez da sinplea, eta gutxiago izaera globalekoa. 2020an bioaniztasuna bermatzeko balio ekologiko handiko eremuak babesteko plana jarri zen martxan, lurrazalaren %30 edo %50 babestea helburu. Orain, "Nature" aldizkariak zabaldur duenez, plan honek Asia hegoaldean eta Saharaz hegoaldeko Afrikan ondorio larriak izango lituzke. Edinburgoko Unibertsitateko ikertzaileen arabera, bioaniztasunaren galerari hain modu globalean begiratzea herrialde abera-

tsentzat soilik da onuragarria. Izan ere, %30 babestuz, 93.000 heriotza ekidingo lirarteke herrialde aberatsetan haragiaren kontsumoa murriztean, baina 377.000 heriotza eragingo lituzke tropikoko herrietan fruta eta barazkien kontsumoa murriztearen ondorioz. Lurraren %50 babestuta, ordea, 297.000 heriotza ekidin baina 691.000 heriotza berri eragingo lituzke.

Gakoa, jakina, tokian toki ikertu eta eraldatzea da. Lur eremu bakoitzean bizi direnak lur horretatik nola bizi diren aztertu, eta poliki-poliki, praktikara eraman. Pazientziaz. Vandana Shiva fisikari hinduista ez da nire debozioko santua, baina gako bat ematen digu: «Gizartea eraldatu nahi duenak aukera ezin hobea du egunero hiru aldiz: gosaltzean, bazkaltzean eta afaritan». •